

**JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
OSASUN SAILA****4630**

228/2005 DEKRETUA, abuztuaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Kontseilua sortzeko dena.

Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.22 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dio honako eskumen osoa: Profesionalen Elkargoen eta Tituladun Lanbideetan jardutearen arlokoa, betiere kontuan izanik Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoa.

Tituladun Lanbideetan jarduteari eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen bitartez garatu zen eskumen hori; eta lege horren 41. artikuluan ezartzen denez, tituladun lanbide batek elkargo-erakuntza badu, profesionalen elkargoak batuta, badu aukerarik profesionalen kontseilu bat sortzeko.

Artikulu horretako 3. paragrafoan ezarritakoan oinarriturik eta alde zuzenetik hartarako aldeko erabakia izanik, Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Kontseilua sortzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Elkargo Ofizialek ekimen bat bideratu zuten Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailean.

Era horretan, betetik, profesionalen elkargoei ordenamendu juridikoak ematen dizkieten helburuak lortzen lagunduko duen tresna eraginkor eman nahi zaio lanbideari, eta, bestetik, autonomien lurralde-egoerari egokitu nahi dira egiturak, hain justu ere, oro har administrazio publiko guztiekiko harremanak erraztu eta azkartuaz eta bereziki Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekikoak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Kontseilua operatibitate osoa izateko beharrezkoa da bere gobernu-organismoak eratzea, eta horretarako honako artikulua aplikatuko da: Profesionalen Elkargo eta Kontseiluen eta Tituladun Lanbideen Erregistroaren Arautegiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 35. artikulua, izan ere, Kontseilua sortzeko dekretuak indarra hartzen duenetik bere gobernu-organismoak eratzin diren arte aplikatu daitezkeen aldi baterako erregimena jasozten baita artikulu horretan.

Horrenbestez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuak eta Osasun sailburuak batera egindako proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluek 2005eko abuztuaren 30ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL
DEPARTAMENTO DE SANIDAD****4630**

DECRETO 228/2005, de 30 de agosto, por el que se crea el Consejo de Médicos del País Vasco.

El artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía atribuye a la Comunidad Autónoma del País Vasco competencia exclusiva en materia de Colegios Profesionales y ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución.

Dicha competencia ha sido objeto de desarrollo mediante la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales, cuyo artículo 41 establece la posibilidad de constitución de un único Consejo profesional mediante la agrupación de los correspondientes Colegios Profesionales siempre que una profesión titulada disponga de organización colegial.

Al amparo de lo establecido en el párrafo 3 del citado artículo, los Colegios Oficiales de Médicos de la Comunidad Autónoma previo acuerdo favorable al efecto, instrumentaron la correspondiente iniciativa ante el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social al objeto de que se procediese a la creación del Consejo de Médicos del País Vasco.

Se pretende de este modo, por una parte, dotar a la profesión de un valioso instrumento que coadyuve al cumplimiento eficaz de los fines que el ordenamiento jurídico otorga a las corporaciones profesionales y por otra, adecuar sus estructuras a la realidad territorial autonómica facilitando y agilizando sus relaciones con todas las Administraciones públicas en general y la Administración General de la Comunidad Autónoma en particular.

La plena operatividad del Consejo de Médicos del País Vasco exige la previa constitución de sus órganos de gobierno, para lo cual será de aplicación el artículo 35 del decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales, que recoge todo el régimen transitorio aplicable desde la entrada en vigor del Decreto de creación del Consejo hasta la citada constitución de sus órganos de gobierno.

En su virtud, a propuesta conjunta de los Consejeros de Justicia, Empleo y Seguridad Social y de Sanidad, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 30 de agosto de 2005,

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Sorrera.

1.— Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Kontseilua sortzen da, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoan lanbidearen defentsa eta goreneko ordezkaritza gauzatuko baititu, betiere gizartearen interes eta beharizan orokorrekin bat etorriaz.

2.— Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei eta Tituludun Lanbideetan jarduteari buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 41.5 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriaz, nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izango ditu Kontseiluak.

2. artikulua.— Osaera.

Kontseiluak gutxienez organo plenario bat, gobernu-organu bat eta lehendakaritza-organu bat izan behar harko ditu, horretaz gain, estatutuek zehazturako funtzioak eta osaera dituzten beste organo batzuk ere izan ditzake.

3. artikulua.— Eginkizunak.

Azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 42. artikuluko ezarritakoak dira Kontseiluaren funtzioak, bai eta estatutuetan ezartzen direnak eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio autonomikoak, foralak eta tokikoak ematen dizkietenak ere, betiere 18/1997 Legearen 43. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriaz.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Estatutuak prestatzea eta gobernu-organuak eratzea.

Profesionalen Elkargo eta Kontseiluen eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Arautegiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuko 35. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriaz prestatuko dira Kontseiluaren estatutuak eta, halaber, eratuko dira bere gobernu-organuak.

AZKEN XEDAPENA

Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia-San Sebastián, 2005eko abuztuaren 30ean.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

DISPONGO:

Artículo 1.— Creación.

1.— Se crea el Consejo de Médicos del País Vasco para la suprema representación y defensa de la profesión en congruencia con los intereses y necesidades generales de la sociedad, en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.— El Consejo tendrá personalidad jurídica y plena capacidad de obrar, de conformidad con lo previsto en el artículo 41.5 de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales.

Artículo 2.— Composición.

El Consejo habrá de contar como mínimo con un órgano plenario y de gobierno y con un órgano presidencial, pudiendo tener además otros órganos con la composición y funciones que determinen los estatutos.

Artículo 3.— Funciones.

Son funciones propias del Consejo las que se establecen con carácter general en el artículo 42 de la mencionada Ley 18/1997, de 21 de noviembre, así como las que se establezcan sus estatutos y las que pudieran delegarle las Administraciones autonómica, foral o local de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 43 de la citada Ley.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Elaboración de los estatutos y constitución de órganos de gobierno.

La elaboración de los estatutos del Consejo y la constitución de sus órganos de gobierno se efectuará de conformidad con lo establecido en el artículo 35 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales.

DISPOSICIÓN FINAL

Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Donostia-San Sebastián, a 30 de agosto de 2005.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.